

GIPUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



39. Informazio Buletina 2009ko Azaroa





NABARMENDU BEHARREKOA

Enpleguaren krisia: joera, erantzun politikoak eta ekintza nagusiak

Emaitza ekonomiko kaskarren ondorioz enpleguaren eta langabeziaren uzkurdua gertatu bada ere, Batzordeak adierazi duenez eta narriadura ezaugarri argiak izanda ere, lan-merkatu europarrak ondo samar eutsi dio orain arte, ekonomia-krisiaren bat-bateko izaera kontuan hartuz gero.

Bestalde, Batzordeak adierazitakoaren arabera, gazteak, gutxi kalifikatutako langileak, etorkinak, eta horien artean, aldi baterako enplegu egoeran daudenak dira oraingoz kalte handiena jasan dutenak.

Hala eta guztiz ere, hobetzen hasi aurretik lan-merkatuko baldintzek okerrera egin dezaketela adierazi du, eta berriki gertatutako zantzu ekonomikoak pozgarriak badira ere, lan-merkatuetan ekonomia-krisiaren guztizko eragina iristear dagoela dio, neurri batean behintzat.

Eta enpleguan krisiak izandako eragin negatiboak arintze aldera eta behin krisia gaindituta enpleguaren hazkunde jarraitua berreskuratze aldera, hiru ekintza nagusi ezinbesteko proposatzen ditu: Lan-merkatuaren neurri eraginkorretan eta eskumenetan inbertitzea, iraupen luzeko langabezia saihestu ahal izateko; enpresei lanpostu berriak sortzen laguntzea; enplegua lanaren antolakuntza malgu baten bidez babestea; gazteei eta krisiaren eragina gehien jasan duten pertsonei laguntzea; eta ezohiko kontratuak dituzten langileen egoera hobetzea.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0649:FIN:ES:PDF>

Gipuzkoa eta Europako muga-lurraldeak

Europako Batzordeko Eskualde-politikako Zuzendaritza Nagusiak lanerako dokumentu bat landu du eta bertan, ezaugarri geografiko bereziak dituzten lurraldeen ekonomia eta gizartearen egoera, eta azken urteotan izan duten bilakaera aztertuta ditu. Lan horren helburua lurralde-mota desberdinak ezaugarritzen dituzten balizko joerak identifikatzea da. Dokumentua Kohesioaren Liburu Berdearen hausnarketaren barruan dago eta liburuak ezaugarri bereziak dituzten lurraldeen arteko elkarlana bultzatzearen alde egiten du (barruko eta kanpoko mugakideak, mendikoak, irlak, dentsitate txikikoak eta itsasoz haraindikoak).

Batasunaren barruko lurralde mugakideetan (NUTS 3 mailaren arabera definitutakoak), horien artean Gipuzkoa dago, biztanleriaren % 35 bizi da eta Batasunaren batez bestekoa baino % 8 txikiagoa da haien aberastasun per capita eta azken urteotan, joera dibergentea du.

Halaber, lurralde horiek dinamismo demografiko eta enplegu baxuagoa izateagatik nabarmetzen dira, eta baita ikastetxe eta osasun-zentroetara irisgarritasun txikiagoa izateagatik ere.

Informazio gehiago (ingelese):

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/work/2009_02_geographical.pdf



Herman van Rompuy, Europako Batzordeko lehen Presidente iraunkorra

Azaroaren 19an bildutako Europar Batasuneko Batzordeak Herman Van Rompuy izendatu du Europako Kontseiluko presidente eta Catherine Ashton, berriz, Kanpo Arazoetako eta Segurtasun-politikako goi ordezkari.

Bi karguak berriki onetsitako Lisboako Ituna aplikatzearen ondorioz sortu dira, munduko gaietan EBren lekua finkatzeko eta erabakiak hartzea arrazionalizatzeko helburuarekin.

Presidente berriak bi urte eta erdiz beteko du kargua, eta behin luzatzeko aukera izango da. Bestalde, estatu kideen sei hileko txandakako lehendakaritza ordezkatu du. Izendapenak abenduaren 1etik aurrera ofizialak izango dira, data horretan abian jartzen baita Lisboako Ituna.

Batasuneko arduradun gorenak izendatu ondoren, José Manuel Barroso Batzordeko presidenteak Batzorde berria eta 27 kideetako bakoitzaren ardurak aurkeztu zituen.

Agintaldia abiatu aurretik, Europako Parlamentuaren onspena izan beharko du Batzorde berriak eta agintaldia 2014ko urriaren 31 arte luzatuko da. Izendatutako komisarioak banan-banan agertuko dira parlamentuko batzordeen aurrean urtarrilaren 11tik 19ra bitartean eta Batzorde berria osotasunean onetsiko duen bozketa urtarrilaren 26an egitea aurreikusten da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/news/eu_explained/091120_es.htm

Lisboako Ituna:

http://europa.eu/lisbon_treaty/full_text/index_es.htm





KOHESIO-POLITIKA

Egitura-funtsen gaineko urteko txostena

Batzordeak egitura-funtsei buruzko urteko txostena, 2008 urteari dagokiona, argitaratu du. Aurrekontuen betearazpena berrikusteari buruzko txostenak, programak garatzeko modua eta urtean zehar onetsitako proiektu nagusiak biltzen ditu.

Txostenak funtsen inplementazio-maila, euren sendotasuna eta koordinazioa, nola ebaluatzeko eta kontrolatzeko mekanismoak eta jarduketak laburbilduta jasotzen ditu.

Aurten, 2000-2006 aldiari dagozkion 718 programa eta proiektu kudeatu dira eta 2007-2013 aldirako 434 programa planifikatu eta programatu dira.

Informazio gehiago (ingelese):

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0617:FIN:EN:PDF>

Autonomia Erkidegoak erkidegoko aurrekontu berriaren aurrean

Autonomia erkidego espainiarrek erantzun bateratu bat aurkeztu diote Europako Batzordeari erkidegoko aurrekontuaren berrikuspenaren aurrean.

Bertan adierazten denez, kohesio-politikak eskualdeko ikuspegia mantendu behar du, Lisboako Ituna kontuan hartuz, bertan jasotzen baita politika honen eskualdeko izaera.

Eta, halaber, ikuspegi honek gobernantza, kudeaketa eta ikuspenaren aldetik askotariko abantailak dituela eta ikuspegi honek erkidegoko eskualde guztiak barne hartu behar dituela dio.

Informazio gehiago:

http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-10572/es/contenidos/nota_prensa/com09_presupuesto_ue_0911/es_presu_ue/adjuntos/posicion_comun_ccaa_presupuestoue_noviembre2009.pdf

SUDOE programa 2007-2013: proiektuen bigarren deialdia

Programaren Jarraipen Batzordeak Europako Hego-Mendebaldeko Esparrua 2007-2013 Lurralde Lankidetzarako Programako proiektuen bigarren deialdia abiatzea erabaki du. Honela, 2009ko azaroaren 16an irekiko da eta 2010eko apirilaren 30ean bukatuko da.

Informazio gehiago:

<http://www.interreg-sudoe.eu/ESP>



KOMUNITATEKO POLITIKAK

Europar Batasunean osasun alorreko desberdintasunak gutxitzea

Batasuneko herritarrak batez beste aurreko belaunaldikoak baino denbora luzeagoz eta osasun hobegoarekin bizi arren, EBk erronka garrantzitsua du: estatu kideen artean eta estatuen barruan osasunari dagokionez dauden desberdintasun handiak. Gainera, desberdintasun hauek areagotzen egon daitezkeela adierazten duten zantzuak daude.

EB osoan osasunaren alorrean gizarte mailaketa dagoela nabarmentzen da, izan ere, hezkuntza-maila baxuena duten pertsonak, gutxiago baloratutako ogibideak edo diru-sarrera baxuak dituztenak gazteago hiltzen dira, eta horien artean, osasun-arazo gehienek kopurua handiagoa izan ohi da.

Esperientziak agerian uzten du aurre egin beharreko hainbat erronka daudela, osasunaren alorrean dauden desberdintasunak gutxiagotzeko dauden jarduketak indartu ahal izateko. Honako hauek dira: Osasunaren bidezko banaketa, garapen sozial eta ekonomikoaren atal gisa; ezagutzen eta datuen eta informazioa neurtzeko, gainbegiratzeko, ebaluatzeko eta transmititzeko mekanismoak hobetzea; eragile sozial desberdinen konpromisoa lortzea; eta talde ahulen beharrak betetzea.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/health/ph_determinants/socio_economics/documents/com2009_es.pdf

Nekazaritzako politika bateratuaren sinplifikazioa

Batzordearen Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiak txosten bat aurkeztu du gaur joan den apirilean estatu kideek elkarrekin igorritako NPBren 39 sinplifikazio-proposamenei buruzko erantzunak biltzen dituen.

Halaber, Batzordearen lan-dokumentuak sinplifikazioari buruzko ideia gehigarri sorta aurkeztu ditu, esaterako, nekazaritzako produktuak sustatzeko programa errazagoak.

Informazio gehiago (ingelese):

http://ec.europa.eu/agriculture/simplification/sec2009_1601_en.pdf

Nanozientziak eta nanoteknologiak: Europa 2005-2009rako ekintza-plana.

Nanozientzien alorrean eta nanoteknologiak industrian aplikatzerakoan izandako ezagutzak pixkanaka-pixkanaka areagotuz joan dira, eta bereziki azken hamar eta hoge urteetan barrena.

Alor honetako ekintza-plan europarraren jarraipenerako dokumentuak datozen urteetan egungo ekintzekin jarraitzea eta horiek indartzea proposatzen du, honako hauek nabarmenduz: Ikerketa-lana sakontzea; azpiegituren eta hezkuntza-sistemaren garapenarekin jarraitzea; elkarrizketa sozial zuzenagoa ezartzea; araudiaren egokitzapena berrikusten jarraitzea; produktu nanoteknologikoen merkaturua zaintzea; eta segurtasuna ebaluatzearen inguruko ikerketa-ahalegina bizkortzea.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0607:FIN:ES:PDF>



e-LIBURUTEGIA

Klima-aldaketa: Kiotoko helburuen betetze-maila

Estatu kideen proiektzio berrietan oinarritzen den Kiotoko helburuen betetze-mailari buruz Europako Batzordearen egoeraren txostenak adierazten duenez, indarrean dauden politika eta neurriei esker, EB-15eko herrialdeen berotegi-efektuko gas-isurtzeak % 6,9 murriztu beharko dira 2008-2012 konpromiso-aldian, aurreko erreferentziako urteari dagokionez (1990).

Kiotoko Protokoloaren arabera, Protokoloa ospatu zen unean EBko kide ziren 15 herrialdeak 2008-2012 aldian barrena berotegi-efektuko gas-isurtze kolektiboa % 8 murrizteko konpromisoa hartu zuten, erreferentziako urte bateko mailari dagokionez.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/09/1703&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=en>

Txostena (ingelese):

http://ec.europa.eu/environment/climat/pdf/gge/com_2009_630.pdf

Enpleguar buruzko 2009ko txostena

Europako 2009ko Enpleguaren gaineko Txostenak adierazten duenez, Batasunean enpleguen kopurua 4 miloi baino gehiago jaitsi da egungo krisia abiatu zenetik, lanaldiaren murrizketa bezalako neurri aringarrien eragina izanda ere. Murrizketak aldi baterako kontratua zuten gizon, gazte eta biztanleengan izan du eragina.

Txostenaren arabera, karbono-isurtze murriztuak dituen ekonomia lehiakor bilakatzeko EBk hartutako neurriak (enplegu «berde» berriak sortzea eta daudenak ekologiko bihurtzea) lan-merkatua dinamizatzeko oinarri garrantzitsua dira. Beraz, klima-aldaketak eta horrekin lotutako neurri politikoek ondorio garrantzitsuak izango dituzte etorkizunean lan-eskumenak eskatzeko orduan.

Karbono-isurtze murriztuak sortzen dituen ekonomiak eskatzen dituen eskumen berriek oso kalifikatuta dauden langileentzat mesedegarri izango dira, hasiera batean behintzat. Hala ere, merkatuan teknologia berriak sartzearen ondorioz, gutxi kalifikatutako langileek enplegu berriak eskuratzeko aukera izango dute, behar den prestakuntza jaso ondoren.

Informazio gehiago (ingelese):

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=en&catId=113&newsId=642&furtherNews=yes>



Enpresek I+G-an egindako inbertsioak: adierazleen taula

Ekonomia-krisia izan arren, EBko enpresek I+Gan egindako inbertsioak % 8,1 igo ziren 2008an, aurreratze horretan enpresa iparramerikar (% 5,7) eta japoniarrei (% 4,4) aurea hartuta.

Enpresek I+Gan egiten duten inbertsioaren % 38 Amerikako Estatu Batuetan egiten da; % 29 Europar Batasunean; % 22 Japonian eta % 11 gainerako herrialdeetan.

Munduko lehen hamar enpresen artean EBko bi enpresa daude: Volkswagen hirugarren postuan eta Nokia, zortzigarrenean. Mundu mailan Toyota Motor izan zen I+Gan inbertsio gehien egin zituena. Halaber, txostenak adierazten duenez, azaleratzen ari diren herrialdeetako enpresek esparru honetan egindako inbertsioen hazkunde handiena izan dute.

Informazio gehiago (ingelesez):

<http://iri.jrc.ec.europa.eu/research/docs/2009/JRC54920.pdf>

Errepideko garraioa 2020an: sozietate zibil antolatuaren itzaropenak

Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen ustiapen-irizpenak islatzen duenez, salgaien errepideko garraioari buruzko aurreikuspenek adierazten dute 2020ra arte hazkundera oso handia izango dela eta portzentajeak bi digitu izango dituela. Egungo ekonomia-krisia dela-eta, datozen urteetan hazkundera gelditzea aurreikusten da, baina horrek ez du 2020ko egoeran modu erabakigarrian eraginik izango.

EBko 27 estatu kideetatik 25ean, salgaien barruko gainerako garraio-moduei dagokienez (trenbidea, barruko bide nabigagarria eta oliobideak/gasbideak), errepideko garraioaren zatia guztizkoaren % 50 baino gehiago izan zen (tona/km).

Europako Batzordeak aurrera eraman asmo duen politika –alegia, transferentzia modal behartua alde batera uztea eta komodalitatea (garraio-modu desberdinak bereizita eta elkartuta modu eraginkorrean erabiltzea, garraio-modu bakoitza optimizatuz eta garraio-modu guztiek ahalik eta modu eraginkorrenean elkarri eragitea lortuz) izeneko kontzeptua abian jartzea–, alternatiben garapenarekin eta inbertsio gehiagorekin batera, beharrezko ikuspegia dela uste du Lantaldeak, oso urrun ez dagoen etorkizunean mugikortasun nola ingurumenaren babes-maila altua lortze aldera.

Eta erregai fosilen errepideko garraioaren sektorearen menpekotasuna epe laburrean murriztea ezinezkoa izan arren, epe luzerako alternatibak bilatzeko ahalegin gehigarriak egin behar direla deritzo. Horrela, beharrezko finantziakzioa izango duen eta energia alternatiboan erabilera bultzatzeko gai izango den garraioko I+G programa berezi bat lantzeko beharra planteatzen da.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2009:277:0025:0029:ES:PDF>



ADIERAZLEAK

Erkidegoko ekonomia hazi egingo da 2010ean

Europako Batzordearen udazkeneko aurreikuspen ekonomikoek adierazten dutenez, EBko ekonomia atzeralditik aterako da aurtengo bigarren sei hilekoan, nahiz eta BPGa % 4 inguru jaitsiko da urtean zehar.

Hurrengo urterako, BPGa % 0,75 haztea aurreikusten da eta 2011an, berriz, % 1,5 inguru. Hala ere, lan-merkatuko baldintzak ez dira oso onak izango. Langabezia-tasak % 10a gaindi dezake datorren urtean eta defizit publikoa BPGren % 7,5a arte igo daiteke.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://ec.europa.eu/economy_finance/thematic_articles/article16051_en.htm

Euskal Autonomia Erkidegoan I+G-an egindako gastuaren intentsitateak Europako batez bestekoarekin bat egiten du

2008an, I+Gan egindako guztizko gastua % 1,85era igo zen Euskal Autonomia Erkidegoan, BPGren terminoetan, eta 2007an I+Gan egindako gastuaren EB-27aren batez besteko intentsitate bera erdietsi zuen.

Erkidegoko herrialde aurreratuenean gastu intentsitatean % 3 (Suedia eta Finlandia) edo % 2 (Austria, Danimarka, Alemania eta Frantzia) gainditzen dute. Sei herrialdeko talde honen batez bestekoa % 2,8 da.

Gipuzkoan (baita 2007an ere) I+Gan egindako gastuaren intentsitateak % 2 gainditzen zuen, zehazki % 2,05.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0005500/not0005510_e.html

Diru-sarrerak eta gastu publikoak EB-n

EB-27an, diru-sarrerak eta gastu publikoak BPGren % 43,9 eta % 49,7 izan ziren, hurrenez hurren, 2009ko bigarren sei hilekoan.

EB-27an defizit publikoa BPGren % 5,8raino igo zen, aurreko urteko hiru hileko berean izandakoa baino portzentajezko 5 puntu gehiago. Aipagarriak dira Espainia, Erresuma Batua, Grezia eta Lituaniaren defizitaren intentsitatea.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-09-093/EN/KS-SF-09-093-EN.PDF